

Maddi Diaz Blanco

D maila • Aipamena

Kaixo, Maddi Diaz Blanco naiz ordiziarra ,2004ko maiatzaren 10ean jaioa. Jakintza ikastolan DBH 1 ikasten ari naiz.

Nire zaletasunei dagokionez, denbora librean gustuko dut lagunekin egotea eta batetik bestera ibiltzea. Kirolak praktikatzea ere gustuko dut eta gehien gustatzen zaidana futbola da.

Lehenengo aldia da bertso lehiaketa batean aipamena edo saria jasotzen dudala eta egia esateko asko poztu nau.



GABONAK

Doinua: Orioko balearena

1.

Ederki portatu da
aurten olentzero mobila
ekarri dit
ez nuen espero
etxetikan gailetak
hartu zitun gero
ea etortzen zaigun
urtero-urtero

2.

Bati mobila eta
besteai muñeka
gure etxea dugu
opariz beteta
pozez marraztu nuen
arrozez kopeta
ta bukatu genuen
guztiok parrezka

3.

Izeba ta osaba
txampaina edaten
urte zahar gauen
mats berdeak jaten
gero denak batera
petardok botatzen
ta nire gurasoak
platerak garbitzen

4.

Berriro eskolara
gabonak pasata l
iburuen aurrean
ezin dut aguanta
gertuan somatzen dut
oparien falta
eta soberan berriz
irakaslen lata.